

249. zk.

Bigarren aroa

Martxoak 15
2015

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Judas Arrietaren
obrak ikusteko aukera
Amaia KZn
6. orrialdea



Gaztea

Euskal ondarearen bila
munduan zehar
13. orrialdea



**Jaso ezazu
IRUNERO
etxean !!**

jarozena@irunero.com
693 828099



Real Unionek ehun urte bete ditu

- 3 Erreportajea: Goranzko joera darama zaintzaren sektoreak
- 5 2014ko Ficobaren balantze ekonomikoa
- 6 Elkarrizketa: Argoiak Elkarteak saritu duen Karmentxu Oronoz
- 7 Caser: omenaldia 100 urte baino gehiago dituzten egoiliarrei
- 10 Hurren Leihoa Toki Alai LH
- 11 Gurasoentzat: Frustrazioa, beharrezkoa den emozioa
- 12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola BHI
- 14 Gazte infor
- 15 Kultur agenda

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiarit.net
kopiarit@kopiarit.net
943 63 93 01

AZOKAN



Yurre Ugarte

“Behin joan nintzen azokara eta erosi nuen...” dio abestiak. Guk erosi dugu: aza... Neguko azarik aza betekoena, azandia, berde horiska, hori zuriska, hosto lakarrak banan bana aletzen hasiz gero amaierarik ez duela dirudien horietakoa, espiralean osatua, Roger Cormanen landare haragijale (Little shop of horrors - Izugarrikerien denda, 1960) txit arrunt eta zoragarriaren filma inspiratu zuen aza... Ba al daki inork non eta noiz jan zen historiako lehenengo aza? Txinan? Baliarrainen? Akaso Mesopotamiako baratze sumeriar batean?

Edonola ere, Moskuko plazan erosi dugun aza badiako baratze umel batetik dator fresko-fresko, eta hura poltsan ipini bezain pronto badiako beste baserri baten altzoan loratu den lehenengo mimosa xorta erosi dugu. Jarraian pareko salmenta-postura goaz gazta puska prezio egokian

lortzeko, eta gero, arraultzeak saldu dizkigu hango beste postukoak, baita laranjak eta limoiak ere haraxeago dagoen saltzaileak. Joan dira haurrak, nola ez, txoriei, ur-dortokei, untxiei eta akuriei erreparatzera, eta guk aprobetxatu dugu unea hamar kulero sexy inon baino merkeago erosteko eta, bide batez, baita etxerako txapin gris batzuek erosi ere. Kaseteen salmenta-toki ohian, egun CD deskatalogatuak edo ofizialki agortuak aurki daitezke; Maixa eta Ixiarrenak, Takolo, Pirritx eta Porrotxen lehenengoa, edota zoritxarrez garunaren erdiguneraino sartu zitzaizun Los Chunguitosen abesti haren CDa. Auskalo zer doinu iristen zaien plazaren parkeko aldean larunbatero presoan alde elkarretaratzea egin ohi dutenei, beharbada ondoko kutxazain automatikotik datorkie, ilara sortu baita bertan sartzeko, makinak “to billete mordo, to beste mordo” diharduelarik. Ilaran daudenak, berriz: goazen marianito bat hartzera, eta kroketa bat, edota muztioa eta kalamarak... Izar gorria jada estalita duen plazan egun morea ospatuko da bihar, eta Asun Casasola mikroipuin lehiaketaren irabazleak iragarriko dira. Ama, alaba, amona, birramona, biloba, iloba, izeba, birbiloba, lehengusinak gogoan izateko aukera, haietariko asko bai azoka-hornitzaile bai erosle eternalak, eta beste asko, kozinatzeke, egunero, aza besterik ez dutenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Emilio Navas parkea atzo eta gaur



Beraunen dagoen parkea Emilio Navas deitzen da 1984az geroztik, Udalaren erabakiz. Irunen jaio zen 1890ean. Oiarztungo udal idazkaria izan zen lehenengo, eta Irungoa 1924tik 1960an jubilatzen arte. Udalak Korporazioaren Ohorezko Idazkari Aholkulari eta Hiriko Kronikari Ofizial izendatu zuen. *El Bidasoa* aldizkarian maiz ko-

laboratu zuen 1915etik aurrera, eta zuzendari ere izan zen 1945etik 1962era bitarte. Etapa hartan berrikuntza garrantzitsua ezagutu zuen aldizkariak: euskarari ateak ireki zizkion. Horri buruz hauxe idatzi zuen Basarrik *El Diario Vascon*: “(..) Ez dakit aldizkari hau artikuluak euskaraz argitaratu zituen lehena izan zen; bai,

ordea, lehenengoetarikoa (...). Halaber, nabarmentzen zuen urratsa emateko “garai hartan gaintitu beharreko zailtasun ikaragarriak”.

Obrarik ezagunena *Irun en el siglo XX* da, non 2.500 orrialde-tan 1900etik 1975era arteko historia jaso baitzuen, zehatz mehatz. 1985en hil zen.

Iturria: *Irungo kaleen izenak*. José Monje.

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57



TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57




BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA BARRA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Wazozkoagoria de Politika Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Goranzko joera darama zaintzaren sektoreak

Biztanleriaren zahartzea begien bistako errealitatea da. Mendekotasuna duten pertsonak gero eta gehiago dira. Hori dela eta, etorkizunari begira aurreikuspen onak dituen sektore bilakatu du adinekoen eta ezinduen zaintzarena. Argi ikusi dute Bidasoa Bizirik erakundearen El Espazio bulegoan. Sektorearen inguruko hitzaldia eta laguntzaile pertsonalak trebatzeko ikastaroa antolatu dituzte.



Etorkizuna izan dezaketen lanbideak aztertzeko eta horien inguruan aholkularitza eta formazioa eskaintzeko lan egiten du El Espazio bulegoak. Anaka kalean dago, eta Bidasoa Bizirik erakundeak jarri zuen martxan, 2007an. "Bide berriak esploratzen saiatzen gara", adierazi du Bidasoa Bizirik-eko Alfonso Gurpegik. Hiru bide azpimarratu ditu: Teknologia berriak programazioaren eta sare sozialen aldetik, ekoizpen ekologikoa eta Maker mugimendua. Hiru garrena argitu du Gurpegik: "Produkzio industrialaren inguruko esperimentazioa da, eskala txikian egindakoa".

Laugarrena mendekotasuna duten pertsonen zaintza da. Demografiaren joerari begiratu, langileak beharko dituen arloa dela ukatzerik ez dago. Aurreikuspenen arabera, 2050ean biztanleriaren %33 65 urtetik gorakoa izango da Estatuan. Bizi itxaropena ere gora egiten ari dela gogoratu du Matia Institutuko Miguel Leturiak: "Gaur jaiotzen diren haurren erdiek 100 urteko bizi itxaropena izan dezakete". Beraz, adineko biztanleriaren kopuruak gora egiten jarraituko du. Eta mendekotasuna duten pertsonenak ere bai.

Orain arte, familiek zaindu izan dituzte, neurri handi batean, mendekotasuna zuten pertsonak. Baina aldaketa soziologikoen ondorioz, zerbitzu profesionalen beharra handitu dela gogoratu du Miguel Leturiak: "Familiek gero eta seme-alaba gutxiago izaten dituzte. Gainera, garai batean etxean gelditzen ziren alabak lan-merkatuan sartzen hasi dira".

Kontuan hartu behar da adinekoek eta ezinduek etxean bizi jarraitu nahi izaten dutela. Legeak ere eskubide hori bermatzen du. Hori dela eta, mendekotasuna duten pertsonen zaintzarako behar den profil profesionala aldatu egin da.



Matia Institutuko Miguel Leturia eta Bidasoa Bizirik-eko Alfonso Gurpegik.

MLaguntzaile pertsonalaren figura

Eskakizun berriei erantzun nahian, laguntzaile pertsonalak trebatzeko ikastaroa eskainiko da El Espazioan, apirilaren 7an. Laguntzaile pertsonalaren ezaugarriak azaldu ditu Bidasoa Bizirik-eko Alfonso Gurpegik. "Zaintzen duen pertsonarekin elkarlanean aritzen da eguneroko jardueretan,

"Laguntzaile pertsonala zaintzen duen pertsonarekin elkarlanean aritzen da"

Alfonso Gurpegi, Bidasoa Bizirik

haren autonomia indartzeko". Etxetik kanpoko ekintzetan ere lagundu behar duela azpimarratu du Miguel Leturiak: "Etxeak ezin dira kaiola bihurtu".

Joan den urtean egin zuten ikastaroaren lehen edizioa. Hamabi parte-hartzaile izan ziren guztira, gehienak berrogei-berrogeita hamar urte arteko emakumeak. Gizartean errotutako ohitura okerren ondorioa dela uste du Miguel Leturiak: "Gizonezko batek adinekoak zain ditzake, emakume batek autobusa edo kamioia gida dezakeen bezala". Generoaren aldetik, ikastaro irekia da Bidasoa Bizirik-ek eskaintzen duena. Zaintzaren sektorearekin harremanen bat eduki izana da eskatuko duten bakarra. Izen ematea www.elespazio.com web gunean egin daiteke, martxoaren 27ra arte.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Zenbaki gorriak atzean utzi ditu Ficobak

Superabitarekin bukatu du 2014a Irungo Ficoba erakustazokak. Bosgarren urtea du jarraian norabide horretan. Diru galeren garaia gaindituta, egonkortzen ari da proiektua. Bideragarritasun planarekin aurrera doazela baieztatu du Ander Sarratea gerenteak: "2016ra ekonomikoki osasuntsu iritsiko garela espero dugu". Hamabi urte beteko ditu erakustazokak urrian.



Eguberrietako Haur Parkeak 15.000 bisitari baino gehiago izan zituen.

Guztira 1.350.000 euroko diru sarreak lortu ditu Ficobak 2014an, aurreko urtean baino %22 gehiago. %12koa izan da erakustazokaren ustiapenari dagokion superabita. Bisitarien kopuruan errekorra gantitu du Ficobak. 140.050 lagun izan dira, 2013an baino 2.000 gehiago. Ekitaldien kopuruan gorakada apalagoa izan da. 2014an 215 izan dira, aurrekoan baino lau gehiago. Guztira, 234 izan dira Ficobaren okupazio-egunak. Horrek esan nahi du egun horietako bakoitzean jarduera bat behintzat hartu zuela erakustazokak,

zenbaketak ez baititu kontuan hartzen muntatze eta desmuntatze lanak.

Ficoban antolatutako ekitaldien erdia baino gehiago bilerak izan dira. %6 bakarrik izan dira azokak. Baina horiek dira, hain zuzen, Ficobaren diru-iturri nagusi. Urtearen balorazio positiboa jarraitutako estrategiaren ondorio dela baieztatu du Ander Sarratea gerenteak: "Jarduera gehienak erakunde pribatuek bultzatzen dituzten lortzen saiatu gara. Ficoba azpiegitura erakargarri bihurtu da ekitaldien antolatzaileentzat". Eki-



Artekaña izan da Ficoban antolatutako ekimen pribatu bat 2014ean.

men pribatuko ekitaldiak dira, esaterako, Ficoauto bigarren eskuko ibilgailuen azoka, Artekaña garagardo artisauaren azoka, eta Expoterraria narrastien, arrainen, artropodoen eta ugaztunen azoka. Ficobak antolatutako azoken artean, Bioterra, Euskal Kostaldeko Gabonetako Azoka eta Eguberrietako Haur Parkea nabarmendu ditu gerenteak.

Ficoban antolatzen dituzten jarduerak eragina izaten dute eskualdeko beste zenbait sektoretan. Hotelek, ostalaritzak eta zerbitzuek Ficobaren bultzada jasotzen dute. Erakustazokako ekitaldiek beren inguruan 8,1 milioi euroko inpaktu ekonomikoa sortu dutela kalkulatu dute Ficobako ordezkariak. Jose Antonio Santano Irungo alkate eta Ficoba Fundazioko presidentek azpimarratu du tokiko ekonomia indartzea izan zela erakustazokaren proiektua abian jartzeko arrazoietakoa bat. Ficobak betetzeke duen erronketako bati erreferentzia egin dio Santanok: "Proiektu propioztat hartu behar lukete irundarrak. Lotura izan daitezkeen kultur eta jai arloko jarduera asko egiten dira Ficoban". Zentzu horretan urratsak ematen ari direla baieztatu du fundazioko presidentek.

Ekitaldien kopurua eta aniztasuna areagotuko dituzte 2015ean



Hogeita hamar ekitaldi baino gehiago lotu ditu da-goeneko Ficoba erakustazokak 2015erako. Berrikuntza moduan, Uhinak, Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko Mugaz Gaindiko Kongresua azpimarratu du Ander Sarrateak: "Klima aldaketaren ondorioei begira Euskadiko eta Akitaniako kostaldeak prestatzeko aurrera eraman beharreko ekintzak jorratzea izango da haren xedea". Urriaren 6an eta 7an egingo dute. Sportjamen udako edizio berezia, Gureak Taldearen 40. urtemuga eta Expotaku mangaren azoka ere hartuko ditu, besteak beste. Kontzertuak ere izango dira: martxoaren 23an The Remains talde estatubatuar beteranoa ariko da; ekainaren 13an, Fito Cabrales bilbotarra, Fito&Fitipaldis taldearekin.

T & T Hizkuntzak



Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak



Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

Karmentxu Oronoz

Karmentxu Oronozek jaso du aurten Argoiak Saria. 2012an ezarri zuenean, Argoiak elkarteak azaldu zuen “Komunitatearen aldeko ekimenak” egi-teagatik sarituko zituela norbanakoak edo erakundeak. Karmentxu hondarri-biarra da, eta urteak egin ditu joste ikastaroak ematen. Kartzelan, etorkinekin, baita Argoiak elkartean ere. “Hasieran saria ez onartzea ere pentsatu nuen. Lotsa ematen zidan”, aitortu du. Justifikaziorik ez du falta, hala ere, jaso berri duen sariak.



“Langabezian dagoen jendeari dirua aurrezten laguntzen diot”

- Nola hasi zinen joste ikastaroak ematen?

Txikitan misiolari izan nahi nuela gogoratzen dut. Bizitzak azkenean beti ematen ditu aukerak, eta Caritasen lan egitea eskaini zidaten halako batean. Emakume ijitoekin joste tailerra egiten hasi nintzen orduan. Jostea ikaragarri gustatu izan zait beti. Baina hortik aurrera, jostekintza irakasle lanetan aritzeko aukera izan nuen.

- Txikitatik josi izan duzu?

Egia esan, idazkari izateko ikasi nuen gaztetan. Baina aita arrantzalea zen, denbora asko pasatzen zuen etxetik kanpo, eta amak laguntza behar izaten zuen etxean. Beraz, akademian bukatu nuenean etxean gelditu nintzen, ezin nuen lanik egin. Horregatik hasi nintzen josten. Bizitzako egoerak baldintzatzen du norberaren bidea.

- Josteko makina zaharrak birziklatzen dituzu.

Hala da. Konpondu, garbitu eta engrasatu egiten ditut, beharra duen jendeari emateko. Gainera, nire ezagunek

badute horren berri, eta erabiltzen ez dituzten makinak ematen dizkirate, konpontzeko eta banatzeko. Nik presatutako makina mordo dago etxeetan sakabanatuta.

- Marokon egon zara behin baino gehiagotan.

Erretiroa hartutako irakasle bat ezagutu nuen. Jakin nuen berak Marokon zeuden moja batzuk ezagutzen zituela, eta gauzak bidaltzen zituela. Nik interesa jarri nuen, eta talde bat osatu genuen, arropak bidaltzeko. Hiru aldiz izan naiz Marokon dagoeneko. Arabiera ikasten hasi nintzen han, eta hemen jarraipena eman diot.

- Harremanak egiteko balio izan dizu.

Marokotarrek eta aljeriarrek oso ondo hartzen naute, arabieraz dakidalako. Etxera gonbidatzen naute, kus-kus-a jatera edo festaren bat ospatzera. Oso harreman ona daukat magrebtarrekin. Caritasen joste ikastaroetara etortzen dira. Langabezian dagoen jendea da, eta dirua aurrezten laguntzen diet.

- Martuteneko kartzelan ere ematen dituzu joste tailerak. Nolako esperientzia da?

Gogorra, batez ere presoak iritsi berriak direnean. Pazientzia handia behar izaten da. Baina ondoren gauza politak ikusten dira, interesa jartzen dutelako, eta elkarri laguntzen diotelako. Abiada hartzen dutenean gustura aritzen dira.

- Noiz iritsi zinen Argoiak elkartera?

Hamar urte daramat Argoiak-en klaseak ematen. Emakume batek jarri ninduen elkarterekin harremanetan. Irakasle bat behar zuten, eta nik gustura hartu nuen postua. Talde batekin hasi nintzen, eta gaur egun lau daukat. Makina erabiltzen ikasten dugu, arropak, gortinak, maindireak edo dena delakoak egiteko eta konpontzeko. Gero eta jende gazteagoa izaten da. Irakasleak, medikuak, erizainak... Oso gustura aritzen dira, jostek erlatu egiten baitu.

GB EVENTOS
Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

Jai herrikolak
Ezkontzak
Urteurrenak

Enpresa ekitaldiak
Erakunde ekitaldiak
Gai baten inguruko ekitaldiak

www.gbeventos.es

BAKAILAOA DASTA EZAZU







Ez ohiko itxura hartu du Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoak. Marrazki bizidunetako eta komikietako pertsonaiek modu oldarkorren jasotzen dute bisitaria, kolore biziak eta ilustrazio deigarriak lagunduta. Judas Arrieta artista hondarribiarra da eraldatze horren erruduna. Apirilaren 19ra arte erakutsiko ditu bere obrak Irunen, “Pintatu ala hil” izenburu esanguratsua daraman erakusketan.



Etxera hurbildu ditu obrak Judas Arrietak



Duela urtebete itzuli zen Judas Arrieta Txinatik. Ia hamar-kada osoa eman du Asian, lanean eta bere artea garatzen. Bueltan, argi ikusi du erakundeekin eta enpresekin elkarlanean aritzea ezinbesteko zaiola bizirauteko. Hiru-hortzeko hori lortu du Amaia Kultur Zentroko erakusketarekin. Irungo Udalaren babesa jaso du, eta, bide batez, Jart Skateboards enpresarekin elkarlanean egindako lana erakutsi du. Txinan egindako margolan handiek osatzen dute erakusketaren lehen zatia. Margolaritzari buruz daukan “jarrera” erakusten dutela argitu du Arrietak: “Mangaren eta ilustrazioaren apologia egiten dut”. Bigarrenean, modu berezian margotutako skate taulak daude. “Nire lana formatu erakargarri batean aurkezteko aukera da”, azaldu du artistak. Jart-ekin lan egitea bere obra zabaltzeko bide izan daitekeela uste du. Ez du baztertu etorkizunean produktuak merkaturatzeko aukera. Bizpahiru margolan kenduta, Arrietak inoiz erakutsi ez

duen obra da Amaiakoa. Lan bakoitza “azaldu” nahi duela azpimarratu du artistak. Horretarako, bisita gidatuak egingo ditu igande goizetan. “Jende askok pentsatuko du mangak ez duela inolako loturarik Irunekin, Hondarribiarekin edo Euskal Herriarekin. Baina oker daude”, azpimarratu du Judas Arrietak. Berak ere, eskualdearekiko lotura indartu nahi izan du. Gaztetxoa zenean, Hondarribian jaio izanaz damu zela onartu du. Baina atzerrian urteak emateak ikuspegia aldatu dio: “Kanpoan zaudenean konturatzen zara jaiolekuak daukan garrantziaz”. Bueltan, bere ekarpena egin nahi izan dio Behe Bidasoari. Gertukoei erakutsi nahi die obra: “Askok telebistan edo egunkarian ikusi naute, baina ez dute nire lana ezagutzen, ez dute sekula aurrez aurre eduki”. Gainera, Irungo kultur mugimenduak “freskotatua” behar duela nabarmendu du. Aniztasuna, behintzat, ekarri dio Judas Arrietak Amaia Kultur Zentroari.

Amaia KZn apirilaren 19ra arte ikusgai diren zenbait lan.



Ehun urtetik gorako egoiliarrei aipamen berezia egin nahi izan diete Caser Anakan, martxoaren 8ko ospakizunarekin lotuta. Bost dira guztira, denak emakumeak. “Gizarte hobea” eraikitzeko beharrezko balioen ordezkari direla azpimarratu du Elena de la Fuente zentroko gizarte langileak: “Lana, esfortzua eta ahalegina erakutsi dituzte, mende osan zehar zailtasunei aurre egiteko”.



Caser Anakan 100 urte baino gehiago dituzten bost emakumeak omendu dituzte.

Ehun urte beteak dituzten emakumeak omendu nahi izan ditu Caserrek

Hilabete bakoitzeko azken asteazkenean, urtebetetze festa antolatzen dute Caser Anaka egoitzan. Hilean zehar urteak bete dituzten egoiliarak omentzeko ohitura dute. Azkena berezia izan da Arcadia Gonzalezentzat eta Reimunda Reicioentzat. Martxoan 102 urte egin ditu Gonzalezek, eta 101 Reiciok. Valladoliden jaio ziren biak, 1910eko hamarkadan. Irungo Udaleko ordezkarien bisita jaso dute, eta Gipuzkoako Foru Aldunditik lore sorta bidali diete. Senideekin eta egoitzako lagunekin ospatu dituzte urtemugak.

Ehun urtetik gorako emakumeen boskoteko kide dira Gonzalez eta Recio. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, aipamen berezia egin nahi izan diete bostei Caserren. Manuela Gallego Peña da Anakako egoitzako emakumerik helduena. Duela 105 urte jaio zen, Salamancan. Angeles Zuazo irundarrak 102 egingo ditu abenduan. Reinosako Concepción Gatok apirilean beteko ditu 101. Azpimarratzekoa da 100 urtetik gorako beste bost egoiliar izango dituztela Caser



Anakan bi urteren buruan. Beste bost horiek ere, emakumeak.

Emakumezko langile gehiago

Gehiengo nabarmena osatzen dute emakumeek Caser Anaka egoitzako egoiliarren artean. 136 dira, eta gizonak berriz, 44, egoitza eta eguneko zentroa kontuan hartuta. Langileen artean ere desoreka agerikoa da. Ehundik gora dira lan taldeko emakumeak, eta sei besterik ez, gizonak. “Tradizioz batez ere emakumeei lana eman dien sektorea izan da. Baina hori ere aldatzen ari da”, onartu du Elena de la Fuente gizarte langileak.

Oraingoaz, askoz gehiago dira emakumeak Caser Anakan, gizonak baino.



Bi urteko epean, beste bost egoiliar 100 urte izatera iritsiko dira.

Ehun urte

1915. urteko udaberrian elkartu ziren Irungo Racing eta Sporting taldeak, Real Union Club sortzeko. Duela ehun urte. Mende osoan zehar, denetarik bizi izan du hiriko futbol elkarte nagusiak: Ligaren fundatzaile izan da, hiru Errege Kopa irabazi ditu, Hirugarren Mailan eta Erregionalean aritu izan da, Real Madril Kopatik kanpo utzi du, Bigarren Mailara itzuli da... Historia gogoan hartzeko eta mendeurrena ospatzeko egitaraua prestatzen ari da Real Union.



Ficobako aretoan Mendeurrenaren aurkezpena egin zen.

Hiru hilabete egin ditu Stadium Galeko klubak elkartaren mendeurrena ospatzeko jarduerak isilean antolatzen. Iñigo Diaz de Cerio futbolari ohiaren leteam enpresarekin lankidetzan ari da Real Union, 2015erako egitarau zabala prestatzeko. Otsailaren 26an egin zuten mendeurrenaren irekitze ekitaldia, Ficoba erakustazokako auditoriumean antolatutako galarekin. Zuzendaritzako kideak, jokalariek, entrenatzaile eta bestelako teknikoak eta langileak izan ziren klubaren izenean. Laguntzaile eta babesleak, inguruko beste klubetako ordezkariak, erakundeetakoak eta kazetariak ere gonbidatu zituzten ekitaldira. Laurogeita hamarrek hamarkadan Real Unioneke jokalaria izandako Julian lantzi telebistako aurkezlea aritu zen animatzaile lanean.

Elkarte umila garen arren, denok gogoratuko dugun mendeurrena antolatuko dugu”
Ricardo García

Agurrak eta Real Unionen ereserkiak eman zioten hasiera ekitaldiari. Ricardo García presidenteak hartu zuen hitza ondoren. 2015erako daukaten asmoa azpimarratu zuen: “Elkarte umila garen arren, denok gogoratuko dugun mendeurrena antolatu nahi dugu”. Julian lantzi Real Unionen historia modu atseginean laburtu eta gero, ETBk prestatutako bideoak zi-

rrara piztu zuen auditoriumean. Hantxe agertu ziren Arabolaza, René Petit eta Etxebeste jokalaritikoak, Javier Irureta, Roberto López Ufarte, baita azken urteotako balentriak ere, Real Madril kontrako kanporaketako irudiak eta Real Union Bigarren Mailara igo zenekoak. Mendeurrenerako Jorge Vicentek diseinatu duen logoa aurkeztu zuten ondoren. “Stadium Galetik ikus daitekeen silueta irudikatu nahi du, San Martzialetik Aiako Harriera, ehun zenbakiaren moduko forma osatuz”.

Moda-pasarela bilakatu zen ondoren Ficobako auditoriuma. Real Unioneke jokalariek mendeurrenaren logoa daramaten jantziak aurkeztu zituzten. Lehen taldeak eta harrobikoek futbol zelaietan erabiliko dituztenak, baita kalean eramateko pentsa-

tutakoak ere. Kamiseta zuria oparitu zioten, hain zuzen ere, José Ramón Fernández de Barrera Uvesco taldeko zuzendaritari. Lehen taldearen babesle nagusia da, Super BM markaren bidez. José Antonio Santano Irungo alkatea, Jokin Melida Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria eta Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea igo ziren ondoren agertokira. Bukaerarako utzi zuten mendeurrenako ereserkiaren aurkezpena. Angel Pazos tenoreak eta Jose Antonio Irastorza musikariak konposatu dute. Luis Mariano orkestrak jarri zion doinua Pazosen kantuari.

Urte osoan egingo dituzte Real Unionen ehun urteak ospatzeko ekimenak. Udako hilabeteetan izango dira jardura gehienak; tartean, futbol partida erakarga-

ria. Aurkaria ez du baieztatu elkarre txuri-beltzak, baina Lehen Mailako talde onenekin negoziatzen ari dira. Edonola ere, aurrendenboraldian zehar euskal talde nagusiak ere Stadium Galen izango dira. Kirol jardueri dagokienez, gazteentzako futbol txapelketak, herri lasterketak eta estropada bat ere egingo dituztela aurreikusten dute. Hitzaldiak, erakusketa eta kontzertuak ere izango dira Real Unionen mendeurrenaren harira. Helburua elkarre irunen eta eskualdean “gizarteratzea” izango dela baietsi du Ricardo García presidenteak. Arazo ekonomiko larriak jasan ditu klubak azken urteotan, eta Real Unionen irudiak behera egin du nabarmen. Galdutako ospe hori berreskuratzeko baliatu nahi du elkarre mendeurrena.




Gasolindegia

YRANZY, S.A.

Javier Aguirre Laso
Gerente

Ayda, Navarra, 18 - 20304 IRUN
Tels.: 943 62 51 83
Fax: 943 63 04 98
javier@avia-uranzu.com
www.estaciondeserviciouranzu.com

txuri-beltzean



Loriatik itzalera: mende bateko historia

1902. urtean kokatu behar dira Irungo futbolaren hastapenak. Irun Football Club izan zen Espainiako Federazioan izena eman zuen lehenengo taldea. Ingalaterratik iritsi berria zen kirol hura, eta lehenengo lagunarteko partidak egungo Zabaltza eta Urdanibia plazetan jokatu zituzten. 1907an Sporting Club sortu zen, garai hartako jokalaria onenatariko batzuk ezagutzera eman zituen elkarte. 1911n, Sportingeko bazkideen artean piztutako desadostasunak zirela medio, Racing Club sortu zen. Arrazoia Sportingek urtero antolatzen zuen Irun-Elizondo txirindularitza lasterketa lehenengo aldiz ez antolatzea izan omen zen.

Lehia handiko urteak izan ziren ondorengoak Irunen. Futbolak hiritarrak banandu zituen. 1912an, Espainiako Txapelketako kanporaketa erregionaletako finala jokatu zuten Racingek eta Sportingek, Amuteko futbol zelai zaharrean. 8.000 ikuslek jarraitu zuten bizilagunen arteko norgehiagoka hura. Sportingek irabazi zuen, baina hurrengo kanporaketa batean Real Madrilek bide bazterrean utzi

zuen. Hurrengo urtean, Racingek aurrera jarraitu zuen txapelketan, Madrilen jokatu zen final handirako txartela lortu arte. Bilboko Athletic Club gainditu zuen Racingek finalean, O'Donell zelaian erakustaldia eman ondoren. Koparekin itzuli ziren jokalaria, eta harrera gogoangarria jaso zuten Irunen.

1915ean Irungo bi talde nagusiek bat egitea erabaki zuten, Irungo Kasinoan burututako bileren ondoren. Orduan sortu zen Union Club taldea, Racingek bezala, Alfonso XIII.aren eskutik "Real" izendapena jaso zuena. Beste hiru aldiz irabazi zuen Espainiako Kopa, 1918an, 1924an eta 1927an hain zuzen ere. Espainiako Ligaren fundatzailetako bat ere izan zen, baina 1932az geroztik ez du Lehenengo Mailan jokatu. Futbola profesionalizatzearekin batera, Irungo talde apalak hasierako toki pribilegiatua galdu zuen. 1942an Hirugarren Mailara jaitsi zen, eta salbuespen izan diren hiru denboraldi kenduta, Bigarren Mailatik behera aritu da aurrerantzean. Gaur egun 2.B mailako talde klasiko bilakatu da.

1. Angel Pazos tenoreak eta Jose Antonio Irastorza musikariak konposatu dute mendeurreneko ereserkia.
2. Kamiseta, txandal eta zenbait arropa berezi egin dituzte.
3. Real Unionekeo lehenengo taldea 1915ean.

Irungo Udal Artxiboa: 40966.



MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- ✓ Arotzeria
- ✓ Margolanak
- ✓ Zaharberitze lanak
- ✓ Lorategiak
- ✓ Iturgintza
- ✓ Sarrailak
- ✓ Elektrizitatea
- ✓ Instalazio zein muntaketak
- ✓ Garbiketa bereziak eta abar

DAVID: 655 70 98 93

Toki Alai LH

Denok egin behar dugu



Bazen behin eguzki bat euskaraz hitz egitea gustatzen zitzaiona. Hitz egiten zuenean, eguraldi ona egiten zuen eta jendea pozik ateratzen zen kalera jolastera. Hodeiak, ordea, ez zuen euskaraz egiten eta eguzkiak esan zion:

- Zergatik ez zaizu gustatzen euskaraz hitz egitea?
- Ez dakidalako hitz egiten.
- Lasai egon, nik irakatsiko dizut.

- Ez, ez eta ez, ez dut ikasi nahi.

- Baina, zergatik ez?

- Ez dakidalako hitzak ondo esaten eta gazki esaten baditut ekaitzak sortzen ditut. eta jendeak ezin du kalera joan jolastera eta triste jartzen dira.

- Lasai egon, nik badakit non dagoen eskola on bat eta han ondo ikasiko duzu.

- Bai, baina ondo ikasten badut ez du inoiz euria egingo

Eguzkia pentsatzen geratu zen eta hau esan zion hodeiari:

- Biok egingo dugu euskaraz eta, horrela egun batzuetan ni ateratzen naiz eta, beste batzuetan, zu. Zer iruditzen zaizu?

- Ondo iruditzen zait.

Hodeiak euskara ikasi zuen eta honela denok pozik geratu ziren.

EIDER CAÑIZAL 3. B

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboa, laborala,
kontularitza eta zerbenak

Ibilgailuen eskualdaketa

Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitortpenak

Aseguru orokorrak

Eta abar...

Frustrazioa, beharrezkoa den emozioa

Frustrazioa da helburu bat lortu ezin dugunean sortzen den emozioa. Desatsegina da, oso, baina ongi bideratzen ikasten badugu, baliagarria, biziki. Ikasketa gogorra izaten den arren, bizitzan dena lortu ezin dugula jakitea garrantzitsua da, eta balioren hezkuntza orekatu bat izateko, funtsezkoa.

Frustrazioa jaiotzen garenetik sentitzen dugu, jaioberriaren lehen beharizan ez asebetek dira gizakion lehen frustrazioak. Amaren sabelean behar guztiak beteak daude, baina jaioberriak hamaika aldaketa sentitzen ditu. Ondorioz, negarraren bidez bere ondoeza islatzen du. Gurasook ezin ditugu haurraren behar guztiak aurreikusi, ezta hauek une berean asetu ere. Horrela sortzen dira jaioberriaren lehen frustrazioak. Hala ere, bere buruaz kontzientea den arte, Nla garatu arte, haurra ahal den gutxien frustratzea inportantea da, nahi eta ez lehendabiziko frustrazioak bizi beharko dituen arren.

Lehen aldi honetan, gurasoen sentsibilitatea (haurrak zer eskatzen duen atzematea) oso garrantzitsua da. Gurasook lasaitasunez, pazientziatz, tonu eta doinu goxoz haurra lasaitzen eta bere betebeharrak asetzen saiatu behar dugu. Haurrak ez du ulertzen zer gertatzen den (kotxean gaudela eta ezin dugula berehala gelditu titia ematera, biberioia beroegi dagoela...) baina helduaren maitasun goxoak (besotan lasai hartuz) frustrazio hori eramaten lagunduko dio.

Zortzigarren hilabetera arte helduaren erantzun azkarrak gero eta negar laburragoa eragiten du. Zaintzaileak haurrari azkar eta sendo erantzuten badio, berehala ikasiko du ez duela zertan sakon negar egin behar kasu egitea lortzeko. Jaioberritan, frustrazioen ekidite honek izugarri lagunduko dio segurtasuna lortzen.

Horrela, haurrak bere beharrak ase-tuak direla sentitzen duen heinean segurtasunez hazten da eta pertsona helduaren eredu bat sortzen du, atxikimendu figura seguru bat eraikiz.

18 hilabete inguruan frustrazioa intentsiboki bizi duen beste garaia da: AFIRMAZIO edo BAIEZTAPEN aldia. Garai honetan bere buruaren kontzientzia hartzen ari da, badela badaki eta bere desioak bete nahi ditu. Baina helduen desioekin topo egiten du eta zenbait arau integratzen hasi behar du. Hala ere, haurrak bere desioak ditu eta berea lortu nahi du; alegia, pertsona bezala badela baieztatu nahi du. Ondorioz, helduak baietz esaten badu, berak ezetz esaten du, eta alderantziz. Ezetzarekin bere boterea adierazi nahi du; bere NORTASUNA baieztatzen ari da. Boterea duena, ordea, heldua da, eta onartzeak frustrazioa sortzen dio, amorrua.

“Kasketen” garaiaz ari gara; baina nik ez dut hitz hori oso gustuko gaur egun, garapen aldi honi negatibotasun handia ipintzen diolako; garai hau positiboki pasatzea, ordea, haurraren garapenean oso garrantzitsua da. Afirmazio garaia positiboki aztertu behar genuke, haurrak horrela ikasiko baitu bere burua defendatzen eta bera baliotsua dela azaltzen.

Oso gogorra da haurrek garai honetan dituzten jokaerak pairatzea; zerbait nahi badute oihuka hasi, bere burua lurrera bota, eta denbora luzez egon daitezke nahi dutena lortu arte edo nahi dutena lortu ezin dutela onartu arte. Momentu horiek zailak dira guraso eta hezitzaileontzat, gure barrunbea kolokan hasten baita; baina haurrak momentu horiek bizi behar ditu, frustrazioa toleratzen edo onartzen ikasi behar duelako.

Gure ezetza muga edo erreferentzia argia da haurraren zaintza bideratzeko: egunero goxokiak jateari ezetz esaten diogu haren



Nola lagundu frustrazioa onartzen?

- 3 urte bitarte haurrei arau gutxi baina argiak ipini behar zaizkio. Gure buruari (hobe bikotekide edo lankidearen adostasunaz) argi galdetu zein diren guretzat beharrezko arauak eta errutinak.
- Haurra kexatzen hasten denean, arnasa hartu,

gure burua pazientziatz bete eta segurtasuna islatzen saiatu. Normala da haurra frustratua sentitzea, hamaika aldiz esaten baitiogu EZETZ.

• Haurra ulertzea eta bere frustrazioa onartzea, hitzetan ipintzea sentitzen duena: “Haserre zaude?”

“Badakit hori nahi duzula, ulertzen zaitut; baina, sentitzen dut: ezin da”.

• Ahal bada, ezetzarekin batera, berak onartzen duen bide bat ireki: “Gaur ez dago goxokirik, baina eskola ez dagoenean erosiko dugu”.

hortzak zaindu nahi ditugulako, korrika sototik ateratzeari ezetz esaten diogu ez dugulako kotxerik harrapatzea nahi, luzaz telebista ikusteari ezetz esaten diogu beselako trebetasunak garatzea nahi dugulako, ezetz esaten diogu gauean berandu lotara joateari haren loa eta osasuna bideratu nahi dugulako. Erreferentzia argiena **HAURRAREN ZAINZA BIDERATZEN DUTEN EZETZAK ESATEA DA.**

EZETZA beharrezkoa eta koherentea dela seguru bagaude, haurrak mezua argi jasotzen du; kexatzen da, baina errazago onartzen du ezin dela.

Ez zaitezte frustratu, guk ere ez dugu dena ongi egiten, baina saiatuz goaz aurrera.

Mapi Urresti Ortiz

KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA.



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT



Txingudi Ikastola BHI

Literatur Sariak

Emandako ipuin zatitik abiatuta, ikasleak bere ipuina asmatu behar du.

...Atzetik inor ez zuela jabetu zenean, Garmendiak mantsotu egin zuen zaldiaren abiada eta lasai ekin zion mendian gorako bideari. Hiru egunez izan zituen atzetik Harry Garbi-ren morroiak. Arima ahoan zuela ekin zion ihesari Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketa berari egotzi ziotenean, eta zalantzarik gabe ezkutalekurik hoberena aukeratu zuen: basamortu ondoko mendiak...



2. maila
IRABAZLEA
Igauri Lopetegi

Garmendiarrek egindako hilketa

Duela 120 urte edo, New York hirian Euskal Herritik hara joandako 3 pertsonak osatutako familia bat bizi zen. Nekane Errekarte ama, Joxe Migel Garmendia aita eta Jon Garmendia 13 urteko semea. Diru arazoak zituzten eta hori zela eta semea janari lapurretan ibili ohi zen aita hala aginduta.

Bost urte geroago, Wide Rose auzoko familia aberats bateko senar-emazteak hilda azaldu ziren. Aurreko gauean, Garmendia aita-semeek ez zuten etxean lo egin. Aitak, Harry Garbi herriko sherif-ari senar-emazteak eta berari isilik egoteko esan ziola, heriotzarekin mehatxatuz.

- Lasai, Joxe Migel, nik babestuko haut, esan zion Sherif-ak- orain esaidak non bizi den hire semea.

- 5. kaleko 31.n bizi da.- Joxe Migelek negar zotinka-. Soilik gauza bat eskatzen dizuet, ez dezala sufritu.

Leihotik ikusi zituen Jonek Harry Garbi-ren morroiak. Jauzi batez garajera jaitsi eta zaldia hartuta ihesi joan zen. Atzetik inor ez zuela jabetu zenean, Garmendiak mantsotu egin zuen zaldiaren abiada eta lasai ekin zion mendian gorako bideari. Hiru egunez izan ziruen atzetik Harry Garbi-ren morroiak. Arima

ahoa zuela ekin zion ihesari Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketa berari egotzi ziotenean, eta zalantzarik gabe ezkutalekurik hoberena aukeratu zuen: basamortu ondoko mendiak. Astebete igaro zuen bertan, artzain batek topatu zuen arte. Garmendiak gertaturikoa azaldu zion eta aitortu zion aitak berari egotzi ziola hilketa, eta berak bazekiela aita izan zela.



- Lasai, mutil- esan zion artzainak- Nik lagunduko diat.

Handik hilabete batzuetara, New York-era itzuli eta Harry Garbi-ri azaldu zion aita izan zela eta atxilotzen saiatu ziren, baina ezin izan zuten, Joxe Migel Euskal Herria itzulia zelako bere emaztearekin

PRODUKTUA ZU ZEU ZARENEAN



Batzuetan ez gara konturatzen gauzek nolako balioa duten: zerbait ikusi eta, deus ordaindu beharrik ez bada, erabili egiten dugu, besterik gabe.

Zerbait hartu eta doan erabili badezakegu, bi aukera baino ez daude: opari bat ez bada, zu zeu zara produktua. Interneten, bigarren aukera izaten da gehienetan. Talde honexetan daude sare sozial guztiak,

ezagutzen ditudanak eta seguruenik ezagutuko ditudanak.

Hasieran dena zoragarria da; lehenago ordaindu behar genituen mezulari-sistemak orain debalde ditugu, eta berdin argazkiak eta bideoak pilatzeko biltegi erraldoiak, txartelak erosi gabe zozketetan parte hartzen dugu, eta albisteak kioskora jaitsi gabe irakurtzen ditugu. Eta dena doan, omen.

Baina esan dut lehenago: doakoa badirudi, produktua zu zeu zara. Sare sozialak erabiltzean, gure informazio pertsonalaren arrastoak nabarmen uzten ditugu. Guk bai ematen diegula hirugarrenei doan informazio hori guztia: gure zaletasunak, ohiturak, interesak, abenturak, joera politikoak, liburuak, musika, filmak... zerbitzuak gure gus-tuen truk eskaintzen dizkigutelako. Horiexek darabiltzate Interneteko eduki-plataformek, iragarleek bertan publizitatea sar dezaten. Marketin eta publizitatean target izenez ezagutzen dena bilakatzen gaituzte: publizitate-inpaktuaren helburua.

Publizitatean, produktu batean interes potentzial handiena izan zezaketenengana marketin kanpainak zuzenean jotzeko aukera ekarri du 2.0 iraultzak. Adibidez, Irun barrenean bizi den 28 urteko neska, bikote egonkorra duena, EAJren boto-emalea, psikologia masterra ikasten ari dena, espainiar jatorriko bigarren eskuko auto baten bila dabil, lo gutxi egin eta oso goiz jaikitzen da, ostiral arratsetan hamburgererietan afltzea eta larunbat goizetan saskibaloian aritzea gus-tatzen zaio...

Deskribapen xehea iruditzen zaizu? Sare sozialek pertsona bakoitzari buruz dituzten milaka datuetatik batzuk baizik ez dira. Datu horiekin erabiltzaile-taldeak osatzen dituzte, eta haiei erakusten zaie bezeroek kontratatutako publizitatea. Nik neuk ikusia da, eta pentsatzen hutsak beldurra ematen du.

Egia esan, deus ez da doan, baina hori zuk ere bazenekien.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kiriak, Desdi nuaire metro, testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falsito de cine, Historias del Biscaya, Zuboga, Kiroien, Bidisoa, Real Unioin, Txingudi al Nabia, Ponte en forma



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 **txingudionline.com**

testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falsito de cine, Historias del Biscaya, Zuboga, Kiroien, Bidisoa, Real Unioin, Txingudi al Nabia, Ponte en forma, Ereala munduan, Kiriak, Desdi nuaire metro

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuboga, Kiroien, Bidisoa, Real Unioin, Txingudi al Nabia, Ponte en forma, Ereala munduan, Kiriak, Desdi nuaire metro, testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falsito de cine, Historias del Biscaya

Herri migratzailea izan da euskalduna historian zehar. Hori dela eta, aztarnak utzi ditu mundu osoan. Horien bila irten dira Erik Bengoetxea eta Urszula Skwarek. Autokarabana batean, puntako teknologiarik eta itzulerarako datarik gabe. European eta Amerikan sakabanatutako euskaldunen eta haien ondorengoen istorioak bilatuko dituzte. Aurkitutako informazioa testu eta bideo formatuan dokumentatuko dute, “Non Edo Non The Basque Heritage” proiektuaren baitan.



Erik Bengoetxea eta Urszula Skwarek, bidaiatuko duten autokarabanarekin.

Euskal ondarearen bila



Martxoaren 3an irten da espedizioa Irundik. Erik Bengoetxea irundarrak eta Urszula Skwarek poloniarrek ez dakite noiz bueltatuko diren etxera. European eta Amerikan zehar bidaiatzen emango dituzte hurrengo hilabeteak. Edo urteak. Baina ez doaz oporretan. Euskal ondarearen aztarnak bilatzea dute helburu. Edo bestela esanda, euskaldunekin lotutako istorioak bilduko dituzte han eta hemen, mundu osoan zehar. Europa autokarabanan zeharkatuko dute: Iberiar penintsulatik Kaukasora, euskararen jatorriaren bila, eta handik Eskandinaviara, Hondarribira iritsi ziren bikingoen herrira. Britainiar Uharteetatik Amerikara joango dira, itsasontziz. Artzain joandako emigranteek edo antzinako arrantzaleek bezala. Kontinente osoa gurutzatuko dute, Ternuatik Argentinara.

“Euskal Herrira
sustraien bila etorri
ziren horien
izimodua ezagutu
nahi dugu”
Erik Bengoetxea

Donostiako pentsio batean dauka jatorria Non Edo Non proiektuak. Bertan lanean ari zirela, testigantza harrigarriak jaso zituzten Bengoetxeak eta Skwarek-ek, bisitari atzerritarren eskutik. “Berezero askok abizen euskaldunak zeuzkaten. Baina batzuek ez zekiten haien arbasoak euskaldunak izan zirenik ere”, azaldu du Urszulak. Kaliforniako Daniel Scott Sarrionandia eta Filipinetako John Oñate gogoratu dituzte, besteak beste. Erik Bengoetxeak argi dauka pentsioan lan egin izana-

ren ondorio onena kontaktuen zerrenda izan zela: “Euskal Herrira sustraien bila etorri zirenean topatu genituen per-tsona horiek. Orain, haien bizilekua eta bizimodua ezagutu nahi ditugu”. Zenbait kasu eta istorio interesgarri lokalizatu dituzte, beraz. Gainontzekoak bilatzeko, dokumentazio lan handia egin dute alde aurretik. Urte eta erdiko lana izan da.

Proiektua saltzeko zailtasunak
Inprobisazioari tartea ere utziko diote, noski. Horregatik aukeratu dute autokarabanan bidaiatzea. Ostatuari dagokion kostu ekonomikoa aurrezteaz gain, leku bakoitzeko jendearekin harreman zuzena edukitzeko aukera emango die. “Hotelera joan beharrean, gasolindegia batean edo edozein kaletan aparkatzen baldin baduzu, nork daki zein pertsona interesgarri topa dezakezun”, nabarmendu du

Skwarek-ek. Testuan eta bideoan bilduko dituzte istorioak. www.nonedonon.com web gunean, eta sare sozialetan eskegiko dituzte, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Istorioak, ezagutzen dituzten heinean argitaratuko dituzte, baina presarik gabe. Teknologiarekiko mendekotasuna alde batera uztea ere bada bidaiaren motibazioetako bat.

“Enpresek ezezkoa
eman digute,
momentu honetan ez
dugulako erakusteko
moduko produkturik”
Erik Bengoetxea

Proiektua bideragarri egiteko finantzazio bila aritu dira. Ate asko jo dituzte, baina gehienak ez dizkiete ireki ere egin. Arrazoa argi dauka Bengoetxeak: “Enpresek ezezkoa eman digute, momentu honetan ez dugulako erakusteko moduko produkturik”. Donostia 2016 da asmoan daukaten bide-etako bat. Bi izaten dira urtero Europako Kultur Hiriburuak. Datorren urtean, Poloniako Wrocław izango da Donostiaren bikotea. Propaganda ona izan daitezkeela uste du Erik Bengoetxeak: “Euskaldun bat eta poloniar bat, mundu osoan biraka”. Hala ere, inolako interesik ez dute azaldu Donostia 2016ko ordezkariek. Proiektua gehiago atzeratzen utzi aurretik, inolako babesik gabe martxan jartzea erabaki dute Bengoetxeak eta Skwarek-ek. Lanaren fruituak argitara ateratzerakoan laguntzaren bat jasoko duten itxaropenez.



Ekintzak

**GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN UDALEKUAK
2015**



Uztailaren 1ean hasi eta abuztuaren 14ra arte, biak barne, egingo diren udalekue-tan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 7 eta 13 urte bitarteko umeei parte hartzeko aukera izango dute.

Izena emateko: Martxoaren 18tik 30era www.gipuzkoan-gazte.eus/eu/ure-programak/udalekuak webgunean.

IRUN ZUZENEAN
Kontzertu akustikoak Irunen.

Non? Bar Royale Club

Ordua? 23:30 (igandeetan 19:30ean).

Kontzertuak?

- 20 ostirala. 23:30. Jam Session
- 21 larunbata. 23:30ean, Electrofolkers.

- 22 igandea. 19:30ean, Jon Zappa.

- 27 ostirala. 23:30ean, Jam Session.

- 28 larunbata. 23:30ean, Blade.

- 29 igandea. 19:30ean. Inalbis.



Deialdiak

**MILANGO EXPORAKO
BOLUNTARIOAK BEHAR DIRA**
Expo Milano 2015eko jardueretan laguntzeko eta ikas-kuntza zein komunikazio esperientzia berezia sortzeko aukera izango duzu.



Zehaztapenak: Boluntarioak 14 edo 15 egun jarraituen aldi baterako aukeratuko dira; gehienez, egunero 5 orduz eta 30 minutuz.

Noiz? Maiatzaren 31tik urriaren 31ra.

Eskabidea egiteko: volontariuropa@ciessevi.org



irun
www.irun.org/gazte
gazte
Informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ASEXORATE



Tailerrak:

"Ikusten duguna ikusten dugu".

Komunikazioa eta sexu-heziketa:

Txatak, kontaktu birtualak, pornografia, Internet.

- Noiz? Martxoak 31
- Ordua? 17:30 - 19:30
- Adina: 13-16 urte bitartekoak
- Non? Martindozenea Gaztelekuan

"Ni, ni neu eta mundua" harreman afektiboak

Sexuarekin dugun harremana, erlazioak, afektibitatea, erabakiak hartzea, desioaren antolamendua.

- Noiz? Apirilak 17
- Ordua? 17:30 - 19:30
- Non? Martindozenea Gaztelekuan

Izen-emateak?

<http://www.irun.org/cod/participacion/tvemos.asp>

Prezioa? Doan.

Igaztek sexualitateari buruzko gune hau gazteentzat ireki du, eta bertan nahi duzun guztia planteatu ahal duzu: zalantzak, hausnarketak, zailtasunak edo bitxikeriak, zure buruaren nahiz bikotearen ingurukoak. Aholkularitza e-postaren bidez egiten da. Kontsulta bat egin nahi baduzu, har ezazu kontuan ondorengoa:

- Ez zaitetz moztu!!! Zerbitzu hau konfidentziala da.
- Azaldu iezaguzu zehaztasun handienarekin zein den zure zalantza.



zure enpresari
internetetik zabalitzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



Martxoaren 17tik 29ra

Nicolas Guerendian Elkartearen erakusketa

Gaia: *Misio pedagogikoak 1931-1936.*

Non? Kolon ibilbideko Laboral Kutxan.

Martxoaren 19tik 22ra

Kostaldeko Trekking-a Asturiasen.

Ibilbidea San Esteban de Pravia - Lamuño (18 km). Lamuño - Castañeras (23 km). Castañeras - Queiruas (22 km). Queiruas - Villar (18 km).



Informazioa: astearteetan eta ostegunetan, 19:00 - 21:00, edo 943 631 484 telefonoan.

Martxoak 18

Imanak egiteko tailerra 12

eta 17 urteko gazteentzako Non? Martindozenean.



Ordua? 18:00 - 19:00
Prezioa? Doan.

Martxoak 25

Sukaldaritza tailerra Ruth Sánchezen eskutik

Non? Argoiak, Bertsolari Uztapide 6.

Ordua? 17:00etan.
Doan.

Martxoak 28

Urdanibia plazaren inaugurazioa: Babarrunjate herrikoa.

Non? Irungo La Sallen, Motor Elkartearen eta Kurpil Kiroletan.

Prezioa? 15 euro.

Txartelak non eskuratu?

Kandi belar-dendan eta Lasa harategian.

**Martxoak 21
DANTZA "SYLPHIDES"**



Sylphides Pl trilogia eszeniko bat da, dantza ulertzeko modua nolakoa izan zen eta egun nolakoa den oraingo kodean eztabaidan jartzen eta berrinterpretatzen duena. Dena kode eszeniko errazean egiten da, eta umore dosi txikiez ziprztindurik. Zati bakoitzak bere dramaturgia koreografikoa du, besteetatik berezia, baina guztiek dute elkarrekin batzen dituen zerbait: XXI. mendeko Silfideen imaginarioa.

Aktoreak? Eva Martinez, Michael Realin, Paula Perez, Marcos Martincano, Alejandro Deza, Stephanie Van Laethem, Baldomero Ruiz, Sofia Valentin, Fernando Careaga eta Maria Cano.

Non? Amaia KZn

Sarrerak? Interneten bidez, leihatilan ikuskizunaren egun berrean, Irungo Turismo bulegoan eta Luis Mariano plazan

Prezioa? 7,10 euro

Iraupena? 60 minutu

Rafael Ruiz Balerdi

Balerdi berrikusten da M. Jose Aranzasti espezialistak zuzendu duen erakusketa honen izenburua. 25 horma-irudi eta paperean egindako 40 marrazki aurkezten dira, hainbat beira-arasatan. Lan gehienak Bilboko Arte Ederretako Museoarenak dira, baina Altxerri galeriak, Kutxa Fundazioak eta hainbat partikularrek ere utzitako lanak bildu dira. Espe Gokoleak egindako bideo batekin eta artistaren marrazki hautatuen ehun argazkirekin osatu da erakusketa.



Noiz? Martxoaren 13tik ekainaren 14ra arte.

Non? Mentxu Gal erakusketa aretoa.

Prezioa? Doako sarrera.



Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN

+34 943 628 333

info@ekarinmobiliaria.com

www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK



Pisua salgai Irún San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldia, trasterokua, berogailu elektrikoa, hegaldoruntz, eguzkitua, hegaldoruntz, eguzkitua.

Ref: 04207 109.000 €



Pisua salgai Hendale
Azalera 65 m², 2 gela bihotz, bainugela, komunak, egongela, sukaldia, terraza, trasterokua, berogailu elektrikoa, hegaldoruntz, eguzkitua eta bista porkekin. Aferkalekuak berme.

Ref: 03511 175.000 €



Pisua salgai Irún San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela binihiarekin, sukaldia, bafekoa, hegaldoruntz, eguzkitua eta bista porkekin. Zaharrezatua.

Ref: 04333 155.000 €



Pisua salgai Irún San Juan
Azalera 45 m², 2 gela, bainugela, komunak, egongela, sukaldia, bafekoa, berokuntza eta igogailua. 2000ko eraikina.

Ref: 04356 140.000 €



Pisua salgai Irún Palmira
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, bafekoa, trasterokua, igogailua, berokuntza, eguzkitua.

Ref: 04298 248.000 €



Pisua salgai Hendale Erdian
Azalera 90 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, berokuntza. Hirugarren plaza, igogailuak pabe.

Ref: 04345 180.000 €



Etxea salgai Hendale-Behobie
Azalera 194 m², 2.000 m²ko bermea, 4 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza, bafekoa, berokuntza, la dria, eguzkitua, Garajoa berme.

Ref: 04349 550.000 €



Lokala salgai Irún San Juan
Azalera 40 m², komunak eta eskapante porkekin. **PRIMERAKO AUKERA!!**

Ref: 04305 210.000 €




Lokala salgai Irún Urdanibia plazan
Azalera 25 m². Otrua berria.

Ref: 04358 83.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

Zure erosketa Irungo Merkatuan
egin nahi baduzu baina joaterik
ez baduzu, egin Internetez



 laplazadeabastos.com
Betidaniko erosketa, orain on line